

2017KO URRIAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko urriaren 26an 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna, EAJ-PNV
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV).
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GERENO jauna (EAJ-PNV) zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2017KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko irailaren 28an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

286/2017.- Fakturen obligazioak onartzea.

287/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

289/2017.- Nitxo baten kontsezinoa.

290/2017.- Abuztuaren 25eko lan hitzarmenaren onarpena.

291/2017.- Akats baten ondorioz egin beharreko aldarazpen baten onarpena.

292/2017.- Kultur Etxeko gela bat lagatzeko baimena.

293/2017.- Kitapen baten obligazioa onartzea.

294/2017.- Pasabide baterako lizentzia.

295/2017.- OHNER Innovación SL enprearen aldeko esleipen proposamena onartzea.

296/2017.- Diru-laguntza eskaera baten aurkezpena ontzat ematea.

297/2017.- Surf txapelketa bat antolatzeko baimena.

298/2017.- Egun libreak izateko edo konpentsazio ekonomikoa eukiteko eskubidea.

299/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

300/2017.- Frontoia erabilteko baimena.

301/2017.- Kitapenaren obligazioa onartzea.

302/2017.- Epai baten ondoriozko kopurua ordaintzeko ebazpena.

303/2017.- Elkarteen diru-laguntzak ordaintzeko agindua.

304/2017.- Igogailua iminteko baimena.

305/2017.- Igogailua iminteko baimena.

306/2017.- Igogailua iminteko baimena.

307/2017.- Hondartzako ekitaldiak antolatzeko baldintzen ezarpena.

308/2017.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

309/2017.- Udal aurrekontuaren aldarazpena.

310/2017.- Zarama tasaren errolda onartzeko ebazpena.

311/2017.- Probalekuaren komunak eta aldagelak barriztatzeko obrak kontratatzeko esleipena egitea.

312/2017.- Kitapen baten obligazioa onartzea.

313/2017.- Auzi-jartzaile batek egindako eskabidea onartzea.

314/2017.- Animalien aldeko azoka antolatzeko baimena.

315/2017.- Kultur Etxeko gelak erabilteko baimena.

316/2017.- Ibarretako gazte ekipamendurako lanen azalpen memoria onartzea.

317/2017.- Diru-laguntza bat eskatzeko oinarriak ontzat emotea.

318/2017.- Diru-laguntza bat eskatzeko oinarriak ontzat emotea.

319/2017.- Animalia arriskutsua izateko lizentzia.

320/2017.- Lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak hurrenkeraren arabera sailkatzea.

321/2017.- Kitapen baten obligazioa onartzea.

322/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

323/2017.- Persona bateri baja emotea udal erroldan.

324/2017.- Ahalmenak emotea Bakioko Udala ordezkatzeko Lan Ikuskaritzaren Gizarte Segurantzari.

325/2017.- Fakturen obligazioak onartzea.

326/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

327/2017.- Saneamendu lanak egiteko lizentzia.

328/2017.- Babeseko etxebizitza bateri jagokonez, udalak erosteko daukan lehentasunezko eskubidea ez erabiltea.

329/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

330/2017.- Garbiketa proposamenak sailkatzeko ebazpena.

331/2017.- Obrak legezatzeko ebazpena.

332/2017.- Behargintzari bialdutako lan eskaintza onartzea.

333/2017.- Kultur Etxeko gelak erabilteko baimenak.

295/2017.- Bakioko jaubetzako eraikinean dagozan probaleku eta futbol zelaiaren erabilerarako komunak eta aldagelak barrizatzeko obren burutzapena esleitzeko OHNER Innovación SL enpresaren aldeko esleipen proposamena onartzen da, eta bertan agindutako agiriak aurkeztu eban ezker, handik eta egun gitxira obrak adjudikatu jakozan; hile biko epean egin daian, 66.671,00 € prezioaren (55.100 gehi BEZ) trukez.

309/2017.- Udal aurrekontuaren aldarazpena.

316/2017.- Ibarretako gazte ekipamendurako lanen azalpen memoria onartzea. Memorian zehazten diran beharrak finantzatzeko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu jako.

330/2017.- Garbiketa proposamenak sailkatzeko ebazpena. Lizitatzailleek hasikeran agiriei buruz, bai eta negoziazio prozesuan aurkeztutako agirien buruz be Udal aparejadoreak txostena idatzi eban, eta horren arabera kontratuaren 1go arloa Garbialdi SA enpreari adjudikatu jako eta 2. arlo, barriz, Garbibakio CB-ri.

3.- BAKIOKO UDALAREN ZERBITZURA DAGOZAN BEHARGINEN 2017KO EKITALDIKO ORDAINSARIAK %1 GEHITZEA.

Gai hori dela-eta, udal idazkariak bere txostenaren edukia azaldu dau, hauxe izanik:

“GAIA.- 2017ko ekitaldirako Bakioko Udaleko zerbitzura dauden pertsonalaren ordainsariak %1 gehitzea.

Batetik, 2017ko ekainaren 28an, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak – Pertsonalaren Gastuei dagokionez – honako hau ezartzen du 18. artikulua.

Bi :2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira.

Bestetik, 2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAeko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziatioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei gomendatzen die neurri hau onar dezaten:

%1eko ordainsari igoera 2017ko ekitaldian

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariek %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtariletik aurrera izan ditzan ondorioak”

Beraz, zinegotziek horren jakinaren ganean dagozan ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, honako erabagia hartu dau, bertaratutako zinegotzien aho batez (10 guztira):

2017ko ekitaldirako Bakioko funtzionario eta lan-legepeko pertsonalaren ordainsariak %1 gehitzea, beti be erabagi honek eragina aurtengo urtarilaren 1etik aurrera izanik.

4.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GANEKO ZERGAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU BEHIN-BEHINEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak ordenantzaren aldarazpenaren edukia azaldu dau, laburbilduta esanez indarrean dagoan ordenantzean karga-tasea %5a dala, baina proposamena dala %5a obra orokorretarako bere horretan ixtea, baina obra zehatz batzuen karga-tasa %3 izatea eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteagaitiko karga-tasa, barriz, %2 izatea, hori guztiori igaz onartutako plan estrategikoaren harira.

Ostean, zinegotziek tramitatutako espedientea kontuan izanik, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Eraikuntza, instalazio eta obren ganeko zerga ordenantzaren aldarazpena behin-behinean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean

oso-osorik argitaratzen dan biharamunean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

5.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Ametz Jauregizar alkate andreak ordenantzaren aldarazpenaren nondik-norakoa azaldu ostean, zinegotziek tramitatutako espedientea kontuan izanik, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zerga ordenantzaren aldarazpena behin-behinean onestea.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartuko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da, eta horrela jarraituko dau aldarazoten ez dan bitartean.

Aldarazpenaren edukia:

3)- 6 artikuluan ezarritako kuoten gainean % 100eko hobaria izango dute indarrean dagoen Ibilgailu Historikoen Araudiaren arabera historiko gisa sailkatuta dauden ibilgailuek, betiere, hala agertzen badira Trafikoko Probintzia Buruzagitzako Ibilgailu Historikoen Erregistroan. Hobari hori baliatu ahal izateko, ibilgailuen titularrek eskatu egin beharko dute eta, horretarako, Udalak administratiboki onartuko duen eredia erabili beharko dute; hobariak eragina izango duen zergaaldiaren aurreko ekitaldiko azaroaren 15 edo hurrengo egun balioduna baino lehenago behar bezala sinatutako eskabidea aurkeztu beharko dute, agiri hauekin lagunduta:

a) Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ).

b) Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia edo Ibilgailua historikoa dela egiaztatzeke, horretarako eskumena duen administrazioak igorritako dokumentua eta Ibilgailu Historikoen Erregistroko inskripzioa. Hobari hori ez da bateragarria izango ibilgailu berberak Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen ganeko Zergan izan dezakeen beste edozein zerga-onurarekin.

4.- Gutxi kutsatzen duten ibilgailuek hobaria izango dute zergaren kuotan, portzentajeari eta epeari dagokienez, ezaugarriak kontuan hartuta, betiere, idatz-zati hauetako batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

a) Motor elektrikoa duten ibilgailuek %60ko hobaria izango dute zerga-kuotan eta isuri nuluak dituzten ibilgailuek % 60ko hobaria izango dute zerga-kuotan.

b) Motor hibridoak dituzten ibilgailuek eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek, gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola erabili, % 60ko hobaria izango dute zerga-kuotan.

Hobari hori eskaripekoa da, eta egiaztatu egin behar da ibilgailuak eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituela, ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Txartelaren bitartez; txartel horretan agertzen ez badira, ezaugarri horiek jasoko dituen eta horretarako eskumena duen administrazioak igorriko duen agiri baten bidez frogatu beharko da.. Hobari horrek ibilgailua matrikulatu den zerga-aldian izango du eragina, baldin eta eskabidea zergaren autolikidazioa egiteko garaiz aurkezten bada, eta eskabidea ibilgailua matrikulatu ondoren aurkezten bada, hura onartu eta hurrengo zerga-aldian izango du eragina.

Hobari hori ez da bateragarria izango ibilgailu berberak Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan izan dezakeen beste edozein zerga-onurarekin.

6.- ESTOLDERIAREN ZERBITZUAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU BEHIN-BEHINEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkatea andreak aldarazpenaren ganeko argibideak emon dauz, esanez aldarazpen nabarmenena hauxe dala: indarrean dagoan zerga-kuotea 9,18 euro dira, eta danei bardin kobratzen jake; aldarazpenaren bidez, barriz, zerga-kuotea kontsumitutako metro kubikoko 0,20 euro izango dira, baina 40 metro kubiko baino gitxiago kontsumitu ezker, zerga-kuotea 8 euro izango dira.

Ostean, zinegotziek tramitatutako espedientea kontuan izanik, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Estolderiaren zerbitzua emoteagaitiko ordenantzaren aldarazpena behin behinean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratzen dan biharamunean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

7.- SASTARRAK BATZEAGAITIKO ORDENATZEAREN ALDARAZPENA ONARTU BEHIN-BEHINEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkatea andreak indarrean dagoan ordenantzaren eta onartu gura danaren desberdintasunak azpimarratu dauz, ganera, esanez, Bakioko ostalaritzako arduradunekaz hartu emonak izan dirala ordenantzea lantzeko orduan euren ikuspuntua jasoteko.

Ostean, zinegotziek tramitatutako espedientea kontuan izanik, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Sastarrak batzeagaitiko zerbitzua emoteagaitiko zerga ordenantzaren aldarazpena behin-behinean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu ostean, 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

8.- URI LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GANEKO ZERGEA ARAUTZEN DAUAN ZERGA ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Honeri buruz. Idazkariak ondoko hau adierazo dau:

Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondasun Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarrian hirugarren atalaren arabera, Udaltzako, 2017ko martiaren 30ean, ordenantzaren 5. artikulua aldarazpena onartu eban, era honetara idatzita geratu daiten: Zerga kuotearen zenbatekoa zerga oinarriari %10eko karga tasea aplikatuz kalkulatu da, eta zerga oinarria balio katastralaren zenbatekoa izango da.

Orain, batzar honetara dakarguna da udal ordenantzearen aldarazpena, baina, beti be uri lurren balioaren gehikuntza ganeko zerga arautzen dauan bagilaren 30eko 8/1989 Foru Araura (2017.01.01 izandako aldarazpena kontuan hartuz) eta bagilaren 20ko3/2017 Foru Dekretu Arautzailera egokitzeke.

Segiduan, zinegotziek aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerre, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Uri lurren balioaren gehikuntzaren ganeko zerga arautzen dauan zerga ordenantzearen aldarazpena behin-behinean onartzea

2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean aplikatu eta indarrean sartuko da.

9.- LIZENTZIARIK BEHAR EZ DABEN EKINTZEN JARDUERETARAKO ESTABLEZIMENDUAK ZABALTZEKOARI BURUZKO ORDENANTZEA HASIKERA BATEN ONARTU, HALA BEHAR BAILTZ

Horren ganean, Idazkariak era laburrean hauxe azaldu dau:

Orain urte gitxira arte, establezimenduak zabaltzeko, udaleko jarduera lizentzia ezinbestekoa izaten zan. Horretarako, establezimenduaren titularrak obrak egin, udalak agindutako neurri zuzentzaileak jarduerari ipini eta udal teknikariak lokala ikuskatu ostean, jarduerara funtzionatzeko moduan baegoan, udalak irekitze lizentzia emoten eban.

Gaur egun (7/2012 legea, 2006/123EE Zerbitzu Direktibaren eraginez EAEko hainbat lege aldarazoten dauzana), barriz, herrian establezimenduak zabaltzeko orduan, modu bi dagoz:

a) Badagoz establezimendu batzuk (lege horretan zerrendatutakoak) irekitze lizentziarik behar ez dabenak, hau da, titularrak udaletxean legeak agintzen dauan agiriak aurkeztu (egindako obren ziurtagiria, jardueraren memoria, jarduerak izango dauzan gelen eta aparailuen azalpenak, eta abar) eta establezimendua berehala zabaldu daike bere kabuz, udal baimenik behar ez dalako.

Udalbatzar honetan, onartu gura dan ordenantzeak establezimendu horreek zabaltzeko jardunbidea arautzen dau.

b) Dana dala, badagoz beste establezimendu batzuk (7/2012 lege horretan zerrendatutakoak) titularrak udaletxean legeak agintzen dauzan agiriak aurkeztu arren (egindako obren ziurtagiria, jardueraren memoria, jarduerak izango dauzan gelen eta aparailuen azalpenak, eta abar), zabaltzeko irekitze lizentziak behar dabenak, beti be, aurretiaz, udal teknikariak jarduerara ikuskatu eta establezimendua funtzionatzeko moduan badago.

Azkenik, zinegotziek tramitatutako espedientearen ganean jakitun diran ezkerro, bozkatzeari ekin deutse, eta ondorioz, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

1.- Lizentziarik behar ez daben ekintzen jardueretarako establezimenduak zabaltzekoari buruzko ordenantzea hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko webgunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, ordenantzea hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta José Antonio Abio) abstenidu egin dira. Izan be, Aitor Apraiz zinegotziak adierazo dau ordenantza mota horren edukia behar dan modura aztertu gura dabela, ekarpenen edo aldarazpenen bat proposatuz beharbada, ordenantzea hogeita hamar astegunez jendaurrean ipini behar dala aprobetxatuz.

10.- ZERBITZUAK EMOTEARREN EDO JARDUERAK EGITEARREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Atoan, Amets Jaueregizar alkate andreak azaldu dau aldarazpenaren muina Kultur-Etxean egiten diran ikastaroei buruzko prezio publikoak onartzea eta arautzea dala.

Zinegotziek tramitatutako espedientearen ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Zerbitzuak emotearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dauzan ordenantzearen aldarazpena behin-behinean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da eta aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartu eta aplikatuko da.

11.- UDAL HERRI JABARIA ATZEMATEAGATIKO TASEN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak aldarazpenari buruzko azalpenak emon dauz, esanez, batez be, aldarazpen horrek hauxe dakarrela: orain indarrean dagozan bost tasa, baktotxa bere ordenantzea izanik, ordenantza bakarraren bidez arautzea.

Hiru tasak honeexek dira:

- a) Herri bideetan kioskoak instalatzea*
- b) Herri erabilerako lurretan postuak, barrakak, salmenta, ikuskizun, atrakzino edo jolas etxatoak, kale-industriak, herriz herriko industriak eta film-errodajeak instalatzea*
- c) Mahaiak eta jesarlekuak imintea irabazteko asmoagaz.*
- d) Ibilgailuak norbanakoen finketara eta garajeetara herriko lurak zeharkatuz sartzera eta hareetatik urtetea.*
- e) Herri erabilerako lurak hesiakaz, aldaminokaz, zutabeakaz, obra-dukiontzia kaz, ziloakaz, material piloakaz, kasetakaz, garabiakaz eta astokoakaz atzematea.*

Ostean, zinegotziek tramitatutako espedientearen ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Udal herri jabaria atzemateagatiko tasen zerga ordenantza araupetzailearen aldarazpena behin-behinean onestea, izan be, horrek ondoko tasen zerga ordenantzen aldarazpena dakar:

- a) Herri bideetan kioskoak instalatzea*
- b) Herri erabilerako lurretan postuak, barrakak, salmenta, ikuskizun, atrakzino edo jolas etxatoak, kale-industriak, herriz herriko industriak eta film-errodajeak instalatzea*
- c) Mahaiak eta jesarlekuak imintea irabazteko asmoagaz.*
- d) Ibilgailuak norbanakoen finketara eta garajeetara herriko lurak zeharkatuz sartzera eta hareetatik urtetea.*
- e) Herri erabilerako lurak hesiakaz, aldaminokaz, zutabeakaz, obra-dukiontzia kaz, ziloakaz, material piloakaz, kasetakaz, garabiakaz eta astokoakaz atzematea.*

2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamazinorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean aplikatu eta indarrean sartuko da.

12.- GAZTELUGATXERA BAKIOTIK BERTARATZEKO BISITEN ANTOLAMENDU ETA ERREGULAZINO PRINTZIOPIOAK ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Esan beharrekoa da zinegotziek, daborduko, badaukiela agiri hori. Amets Jauregizar alkate andreak, dino: Bakion eraturako turismo mahai landutako printzipioak dira eta Informazio Batzordean be eztabaidatu da, eta, azken horren ondorioz, BakioBai taldeak egindako proposamen batzuk erantsi jakoz onartu gura diren printzipioei. Beraz, Foru Aldundiak Gaztelugatxeri buruz plana gauzatzeko sortuko dauan mahai Bakioko Udalak parte hartuko dauan ezker, garrantzitsua da printzipioak mahai horretan azaltzea, postura argia defendatzeko bertan.

Zinegotziek bozkatzeari ekin deutse, eta ondorioz, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien aldeko botoagaz, korporazioa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

Gaztelugatxera Bakiotik bertaratzeko bisiten antolamendu eta erregulazio printzipioak onestea eta akta honeri eranstea.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak (Aitor Apraiz, Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta José Antonio Abio) abstenidu egin dira, Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, egindako adierazpenagaz bat etorri; izan be, hauxe adierazo dau: *printzipioen erregulazioa ez dinogu ez danik beharrezkoa, bertako atal batzuekaz ados egon gaitkez eta beste batzuekaz, barriz, ez, baina, edozelan be, ez dogu uste udalbatzan akordio hori hartzeko momentua danik, ezta beharrezkoa be; ganera, ondino ez dakigu zein dan Foru Aldundiak Gaztelugatxeri buruz idazten dabilen plana, 2018ko urtarrilera arte ez dau-eta amaituko. Hobe da udalak konpromisoak hartzea Gaztelugatxegaz zerikusia daukien erakundeekaz alkarlanean aritzeko eta udal aurrekontuan diru-partidak zainpetzea gauzatuko diran ekintzetarako.*

13.- EUSKERA IKASTEAGAITIK DIRU-LAGUNTZAK BANATZEA ERABAGI.

Amets Jauregizar alkate andreak, dino, horren harira, Bakioko Udaleko euskera teknikariak egindako txostena kontuan hartu beharrekoa dala, horren edukia hauxe izanik:

“Bakioko Udalbatzak, 2017ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, onetsi zuen euskara 2016-2017ko ikasturtean ikastegatiko diru-laguntzen deialdia.

Deialdian 2017ko irailaren 28ra arteko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko. Gauzak horrela, epemuga horretara arte zazpi eskabide aurkeztu dira.

Era berean, deialdian honako baldintza orokor hauek ere zehaztu ziren, diru-laguntza eman ahal izateko: Bakion erroldaturik egotea eta gutxienez %75etik gorako asistentzia egiaztatzea.

Bestalde, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia ziurtatu beharra zegoen eta hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bidez egiaztatu.

Baldintza horiek beteta, matrikularen % 30 lagunduko zen diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman zekizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango zela finkatu zen.

Halaber, Bakioko Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu zuen udal aurrekontuaren 3304810119 partidan, laguntzak eman ahal izateko.

Horrenbestez, eskabideak zazpi direnez, aurrekontuan gehienez ere betearazi beharko litzatekeen diru kopurua partidan ezarritakoa baino txikiagoa da eta, berez, behar beste kreditu dago diru-laguntza banatzeko.

Azkenik, espedientean jasotakoari jarraikiz, aurkeztutako eskabide guztiak beharrezko epearen barruan jaso dira, guztiak betetzen dituzte asistentziari eta aprobetxamenduari dagozkien baldintzak eta matrikula guztiak 95 euroko laguntza jasotzeko beharrezko 316,66 euroko diru-kopurua gainditzen dute, 242 euroko matrikula batek izan ezik.

Beraz, udalbatzak 2017ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran onartutako deialdiari jarraikiz, sei interesdunek 95 euroko laguntza jasotzeko eskubidea dute eta 242 euro ordaindutako zazpigarren interesdunak 73,20 euro.

Beraz, organo eskudunari proposatzen zaio interesdunei diru-laguntza jasotzeko beharrezko ebazpena hartzea, 6 eskaera-egilek 95 euroko laguntza jaso dezaten eta zazpigarrenak 73,20koa.”

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- 2016-2017ko ikasturtean euskara ikasteagaitiko diru-laguntzak jasoteko aurkeztutako zazpi eskatzaileen eskabideak ontzat emotea eta, beraz, sei 95,00 euroko diru-laguntza emotea eta zazpigarren eskatzaileari 73,20 euro.

2.- Atal ekonomikoari agintzea eskatzaile bakotxari jagokon diru-laguntza emoteko.

14.- 2017 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO 7. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU, BETI BE KREDITU GEHIGARRIEN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.

Kreditu gehigarrien nondik norakoak

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak
--------------------	------------	-----------

		Gaur egun	Aldarazpena	Behin
			k	betikoak
920.933.00.05	Hornitzaileen maileguaren amortizazioa	243.332,81	1.172.825,86 €	1.416.158,67 €
GUZTIRA		243.332,81 €	1.172.825,86 €	1.416.158,67 €

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2016eko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	1.172.825,86 €

Amets Juaregizar aldarazpenaren ganeko azalpenak emon dauz. Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse, ganera, espedientea informazino batzordean aztertu dala kontuan izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 7. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu gehigarrien modalidadean**

15.- JORDI CUIXART ETA JORDI SANCHEZEN ATXILOKETEN KONTRAKO MOZIOA ONARTZEA.

Amets Jauregizar alkate andreak dino: hona dakargun mozinoa EAJ-PNV, PODEMOS eta EH-Bildu alderdi politikoek Euskal Legebiltzarrean aurkeztutakoa. Hori esan, eta Udalbatzak onartzea proposatzen dan idatzia irakurri dau:

“Eusko Legebiltzarrak bere kezka eta erabateko arbuioa adierazten du Auzitegi Nazionalak Jordi Cuixart Omnium Culturaleko presidentea eta Jordi Sanchez Biltzar Nazional Katalaneko presidentea baldintzarik gabe espetxeratzeko eman duen agindua dela eta, erabaki horrek oinarritzko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.

Eusko Legebiltzarrak Cuixart eta Sanchez arrazoi politikoengatik atxilotu eta kartzelaratu izana salatzen du.

Eusko Legebiltzarrak bere babesa eta elkartasuna adierazten die Cuixart eta Sanchezi, bai eta Kataluniako gizarte osoari ere, eta biak berehala askatzeko exijitzen du.

Eusko Legebiltzarrak Estatu espainolari eskatzen dio oinarritzko askatasunen aurkako estrategia errepresiboa bertan behera utz dezala demokraziaren funtsezko printzipioen kontrakoa izateagatik.

Eusko Legebiltzarrak berresten du Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko gainerako herriek bezalaxe, bere etorkizun politikoa erabakitzeko zilegitasun demokratikoa duela, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik.”

Segiduan, zortzi zinegotzien aldeko botoagaz (lau EH-Bildu taldekoak eta beste lau EAJ-PNV taldekoak), bertaratutako gehienak izanik, udalaren osoko bilkurak, erabagi hau hartu dau: **Jordi Cuixart eta Jordi Sanchezen atxiloketen kontrako mozioa onartzea.**

Alain Gómez eta Josu Garai, Bakiobai taldeko zinegotziak, abstenidu egin dira, Bakioko herriagaz zerikusirik ez daukien gaien ganean erabagirik ez hartzea dalako talde horren filosofia.

16.- AZAROAREN 25A EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA DALA ETA, HERRERI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ

Ametz Jauregizar alkate andreak adierazpen-instituzionala irakurtzeari ekin deutso, horren edukia hauxe izanik:

“Azaroaren 25a “Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna” dela-eta, Bakioko Udalak, emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten guneak eraikitze xedez, herrialde eta lurralde askeak lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealitate bihurtzeko, egitura sozial paritarioa lortzeko xedez, gure herrialde-konpromisoa sakontzea gure gain hartzen dugu, eta era berean, herritar guztien konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa dugula berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok bere agenda politikoaren eta jardun instituzionalaren lehentasun gisa indarkeria matxistarik gabeko herrialdeak eta lurraldeak eraikitzea izan behar du, baita gizarte igualitario baten defentsa ere, non emakumeek euren burua aske sentituko duten.

Hego Euskal Herrian indarkeria matxistaren datuek gorantz jarraitzen dute, eta % 18,2 handitu dira 2016. urtean 2015. urtearekin alderatuta. Emakume asko, eta askotan ahaztu egiten ditugun haien seme-alabak hil egin dituzte aurten, eta sexu-indarkeriako kasu asko ere izan dira, batez ere udako herri-festetan.

Oihartzun txikia duten indarkeria-adierazpenak daude, horiek normalizatzen dituztenak eta emakumeen kontrako desberdintasunak eta bereizkeria iraunarazten dituztenak; indarkeria sinbolikoaren kasua da, komunikabideen, publizitatearen edota musikaren bitartez sortzen dena, emakumeak zapaltzen dituzten arauak eta esanak ezarriz, edota indarkeria ekonomikoaren kasua, soldata txikiagotan, lan-baldintza txarragotan eta abar islatzen dena. Era berean, aurten ere kezka handiarekin ikusten dugu emakumeen

kontrako indarkeria handitu egin dela herrietako jaietan eta aisialdirako guneetan. Ildo horretan, bereziki kezkatzen gaituzte gazteengan gertatzen diren botere-erlazioak, askotan kontrola, gehiegikeria eta, zenbaitetan, indarkeria fisiko eta sexuala barne.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea horrelako ekintzaren bat gertatzen den bakoitzean; arrazoiaren gainean jardun behar da, sustraira jo behar da.

Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoiaren sakonduko duen ahalegin bat egitea, emakumeen ekiteko ahalmenak onartuz, haien erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistatik gabe bizi ahal izan daitezen lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa bat egitea; hori ez egitea bidezko aldaketa baten aldeko konpromisoari uko egitea izango litzateke.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun agente guztiok egin behar dugu, bestela indarkeria matxistari eusten jarraituko genukeelako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxista amaitzeko: erakunde publikoak, kultura-agenteak, komunikabideak, lan-arloko agenteak eta agente ekonomikoak. Baina pertsonak, familiarek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko modu desberdinak ere babestu behar dira, helburu bakarra izan arren horren aurka borrokatzeko modu asko egon daitezkeelako: autodefentsa feminista bide bat da, baina era berean baliozkoak dira Beldur Barik ekimena, edo herrietako festetako testuinguruan aktibatutako diren ekimenak eta ekintzak, elkarteek edo auzoek egiten dituzten ekimenak eta abar, denei eman behar zaie babesa.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi ditugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

- 1.- Bakioko Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.*
- 2.- Bakioko Udal honek, kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, lotutako indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat jarriko du martxan, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.*
- 3.- Bat egiten dugu herri mugimenduak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.”*

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dala eta, horrerri buruzko adierazpen instituzionala onartzea.

17.- PREMINA LARRIAN DAGOZAN PERTSONEI BAKIOKO UDAL ZERGAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN ARAUDIA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak araudi horren filosofia eta onartzearen beharizana azaldu ostean, eta zinegotziek tramitatutako espedientearen ganean jakitun diran ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Premina larrian dagozan pertsoneri Bakioko udal zergak ordaintzeko laguntzen araudia hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko webgunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, araudia hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikuluaaren arabera).

Udal idazkariak hauxe dino:

2017ko maiatzean egindako Kontuen Batzorde Berezia 2016ko kontu orokorrari buruzko aldeko ebazpena emon eban aho batez.

Jarraian, espedientea, jendaurrean egon zan 15 egun balioduneko epean, 2017.05.27tik kontetan hasita, interesatuek aztertu eta alegazinoak aurkezteko; horretarako, beharrezko iragarkiak ipini ziran udaleko web. orrian, herriko taulan eta 2017.05.26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Inork ez eban aurkeztu alegazinarik.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuaren Foru Arauaren arabera, epe hori igaro ostean, eta bagilaren 30ra baino lehen, Udalbatzak espedienteari buruzko erabagia hartu behar eban.

Erabarik hartu ez zan ezkerro, batetik, hamabost eguneko epealdia bagilaren bigarren hamabostaldian amaitu zalako; eta, bestetik, beste gai batzuk lantzen aritu ginalako. Beraz, uste dogu ezinbestekoa eta premiazkoa dala udalbatzak 2016ko kontu orokorrari buruz erabagi hartzea.

Hori esan eta Udalaren Osoko Bilkurak gai hori premiazkoa dala onartu dau bertaratutako zinegotzien aho batez, hau da, korporazinoa legez osotzen daben guztiek.

Udaleko hiru talde politikoak espedientearen edukiaren jakitun izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau: **2016ko kontu orokorra onestea.**

18.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Inork ez dau egin eskaerarik edo galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 20:10ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria